

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK. 2020KO AZAROA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak 2020ko azaroan aurreko urteko hil berekoak baino % 79,2 baxuagoak izan dira

243 hotel-establezimendu, guztira, itxita egon dira azaro osoan zehar; urrian baino 116 gehiago eta ia ekainaren maila berean

Euskal AEko **hotel-establezimenduetan** azaroan 41.367 pertsonaren sarrerak erregistratu dira; % 81,9 egin dute atzera, aurreko urteko hil beraren aldean. Bestalde, 90.439 gualdi erregistratu dira eta, ondorioz, urtetik urtera % 79,2ko beherakada egon da. Horrek esan nahi du urriko datuen aldean egoerak okerrera egin duela; orduan, 109.393 sarrera eta 209.716 gualdi erregistratu ziren. Hala, hilen arteko beherakadak % 62,2koa eta % 56,9koa izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia. 2020ko Azaroa

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2020/11	m/m-12 (%)	2020/11	m/m-12 (%)	2020/11	2019/11
EUSKAL AE	41.367	-81,9	90.493	-79,2	2,19	1,91
Estatukoak	33.849	-78,6	73.275	-75,1	2,16	1,86
Atzeritarrak	7.518	-89,3	17.218	-87,8	2,29	2,02
ARABA/ÁLAVA	7.813	-74,7	18.014	-69,5	2,31	1,91
Estatukoak	6.365	-74,3	14.945	-67,8	2,35	1,87
Atzeritarrak	1.448	-76,6	3.069	-75,7	2,12	2,05
Vitoria-Gasteiz	6.727	-69,3	15.402	-64,8	2,29	2,00
BIZKAIA	19.735	-82,2	46.078	-77,8	2,33	1,88
Estatukoak	16.924	-78,1	38.074	-72,7	2,25	1,80
Atzeritarrak	2.811	-91,5	8.004	-88,3	2,85	2,05
Bilbao	11.922	-84,4	26.021	-81,5	2,18	1,85
GIPUZKOA	13.819	-84,1	26.401	-84,3	1,91	1,94
Estatukoak	10.560	-81,2	20.256	-81,3	1,92	1,93
Atzeritarrak	3.259	-89,3	6.145	-89,8	1,89	1,98
Donostia / San Sebastián	6.698	-87,3	11.397	-88,6	1,70	1,88

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID19ak eragindako krisiak areagotu egiten du hotel-sektorean azaroan izan duen inpaktu negatiboa, hiru lurralde historikoetan. Hala, Gipuzkoan 2020ko azaroko sarrerek 2019ko azaroaren aldean % 84,1 egin dute behera, Bizkaian % 82,2 eta, azkenik, Araban, % 74,7. Gualdiak direla eta, erregistratutako urteen arteko beherakadak honako hauek izan dira: Gipuzkoan % 84,3, Bizkaian % 77,8 eta Araban % 69,5.

Estatuko sarrerak Euskal AEko hotel-establezimenduetan azaroan 33.849 izan dira eta atzeritarrenak, 7.518; alegia, 2019ko azaroaren aldean beherakada % 78,6koa eta % 89,3koa

izan da, hurrenez hurren. Atzerriko egoiliarren sarrerak azaroan sarrera guztien % 18,2 dira, eta 2019an, hil berean, ehuneko hori % 30,7koa izan zen.

Batez besteko egonaldia 2,19 egunekoa izan da aurtengo azaroan, 2019ko azaroan izan ziren 1,91 egunekoaren gainetik. Araban, iaz 1,91 izan ziren eta aurtengo azaroan, 2,31; Bizkaian ere gora egin du, 2019ko azaroan 1,88 izan ziren eta, 2020ko azaroan, 2,33. Gipuzkoan, berriz, batez besteko egonaldiak behera egin du; 2019ko azaroan 1,94 izan ziren eta, aurtengo azaroan, 1,91.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Azaroa

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2020/11	p.p.*	2020/11	p.p.*	2020/11	m/m-12 (%)	2020/11	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	14,0	-34,5	21,2	-40,6	60,8	-24,5	12,9	-74,1
ARABA/ÁLAVA	18,7	-27,5	28,0	-32,0	56,6	-18,3	15,8	-61,8
Vitoria-Gasteiz	20,2	-28,4	30,9	-34,7	57,7	-6,5	17,8	-56,0
BIZKAIA	14,9	-33,1	22,8	-39,8	60,1	-25,2	13,7	-72,7
Bilbao	13,7	-39,5	20,5	-47,9	64,4	-27,8	13,2	-78,4
GIPUZKOA	10,9	-39,1	16,5	-44,9	64,7	-23,8	10,7	-79,5
Donostia / San Sebastián	8,9	-47,6	13,3	-54,5	81,1	-23,2	10,8	-85,0

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Plazen arabera okupazio-maila dela eta, ehuneko 34,5 puntu egin du behera EAE osorako; 2019ko azaroan % 48,5 izan zen eta, aurtengo azaroan, % 14,0. Lurraldeen arabera, eskainitako plazen arabera okupazio-mailak % 18,7koa, % 14,9koa eta % 10,9koa dira, hurrenez hurren, Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuetan, eta urte arteko beherakadak ehuneko 27,5 puntukoa, 33,1ekoa eta 39,1ekoa, hurrenez hurren.

Logelen arabera okupazio-mailak ere nabarmen egin du behera, ehuneko 40,6 puntu EAE osoan, eta % 21,2koa da. Lurralde historikoen arabera banatuta, honako balio hauek erregistratu dira: % 28 Araban, % 22,8 Bizkaian eta % 16,5 Gipuzkoan.

Sektoreko errentagarritasun-adierazleak direla eta, eguneko batez besteko tarifa EAEko hoteletan 60,8 euro izan dira 2020ko azaroan, urtebete lehenago baino % 24,5 baxuagoa. Batez besteko tarifa 56,6 euro da Araban (% 18,3 egin du behera), 60,1 euro Bizkaian (% 25,2 egin du behera) eta 64,7 euro Gipuzkoan (% 23,8 egin du behera, 2019ko azaroarekin alderatuta).

Eskuragarri dagoen logelako diru-sarrerak (RevPar), hotel-establezimenduen okupazio-mailaren arabera, 12,9 eurokoa izan dira 2020ko azaroan EAEn, 2019ko azaroan baino % 74,1 txikiagoak. Araban, RevPar 15,8 eurokoa izan da; Bizkaian, 13,7 eurokoa, eta 10,7koa Gipuzkoan. Alegia, aurreko urteko hil berean baino % 61,9, % 72,7 eta % 79,5 gutxiago, hurrenez hurren.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren hotel-establezimenduak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Azaroa	389	243	48	27	159	83	182	133
Urria	501	127	53	22	191	49	257	56
Iraila	525	96	54	21	198	39	273	36
Abuztua	532	88	55	20	203	33	274	35
Uztaila	510	109	55	20	192	43	263	46
Ekaina	372	246	46	29	141	94	185	123
Maiatza	188	430	20	55	80	156	88	219
Apirila	56	563	6	69	29	207	21	287
Martxoa	532	87	62	13	206	30	264	44
Azaroa 2019	549	65	68	7	209	25	272	33

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

EAE osoan, 389 hotel-establezimenduk jardueraren bat aurkeztu dute 2020ko azaroan, aurreko hilean erregistratutakoak baino 112 gutxiago eta 2019ko azaroan gutxienez egun bat ireki zutenak baino 160 gutxiago. 2020ko azaroko egun guztietan itxita egon diren establezimenduen kopuruak gora egin du urrian egoera berean egon zirenen kopuruaren aldean: 243 erabat itxita 2020ko azaroan eta 127 erabat itxita 2020ko urrian. 2019ko azaroan, berriz, hil osoan itxita egon ziren establezimenduak 65 izan ziren.

Euskal AEko landetxeetan erregistratutako sarrerek % 93,1 egin dute behera, eta gaualdiek, % 85,5, 2020ko azaroan.

2020ko azaroan, Euskal AEko **landetxeetan** 651 sarrera izan ziren; alegia, urte artean % 93,1eko beherakada egon da. 3.017 pertsonak eman dute gaualdia landetxeetan; alegia, % 85,5eko beherakada egon da, 2019ko azaroan erregistratutako kopuruaren aldean.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2020ko Azaroa

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2020/11	m/m-12 (%)	2020/11	m/m-12 (%)	2020/11	2019/11	plazaka		gelaka	
							2020/11	p.p.*	2020/11	p.p.*
EUSKAL AE	651	-93,1	3.017	-85,5	5	2,2	3	-13,9	5	-13,8
Estatukoak	574	-93,1	2.653	-85,4	5	2,2	-	-	-	-
Atzeritarrak	77	-93,1	364	-86,1	5	2,3	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	79	-96,4	386	-91,6	5	2,1	2	-13,9	3	-14,1
Estatukoak	77	-96,4	384	-91,5	5	2,1	-	-	-	-
Atzeritarrak	2	-96,6	2	-97,7	1	1,5	-	-	-	-
BIZKAIA	204	-91,6	719	-86,3	4	2,2	2	-12,5	5	-12,7
Estatukoak	177	-91,6	655	-85,4	4	2,1	-	-	-	-
Atzeritarrak	27	-91,4	64	-91,8	2	2,5	-	-	-	-
GIPUZKOA	368	-92,3	1.912	-82,6	5	2,3	4	-14,8	7	-14,3
Estatukoak	320	-92,1	1.614	-82,6	5	2,3	-	-	-	-
Atzeritarrak	48	-93,5	298	-82,9	6	2,4	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hiru lurralde historikoek beherakada handiak izan dituzte. Bidaia-eraren sarrerek behera egin dute % 96,4 Araban, % 92,3 Gipuzkoan eta % 91,6 Bizkaian. Gaualdiak antzeko portaera izan dute, eta % 91,6ko beherakada egon da Araban, % 82,6koa Gipuzkoan eta % 86,3koa Bizkaian.

Hala, azaroko egunen batean ostatua eskaini duten landetxeen kopurua 312 izan da; 2019ko azaroan, 365 izan ziren. 125 ostatuk itxita jarraitu dute, berriz, denboraldi osoan, eta, 2019ko azaroan, 57 egon ziren itxita.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren landetxeak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Azaroa	312	125	79	27	84	47	149	51
Urria	356	78	89	17	105	25	162	36
Iraila	363	66	93	12	107	23	163	31
Abuztua	359	69	93	12	105	24	161	33
Uztaila	351	80	88	17	103	28	160	37
Ekaina	285	143	68	37	87	42	130	64
Maiatza	167	260	30	75	54	74	83	111
Apirila	31	396	3	102	11	117	17	177
Martxoa	329	99	89	16	94	35	146	48
Azaroa 2019	365	57	95	7	103	26	167	24

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Modu berean, jarduerak behera egin du, aurreko hilarekin alderatuta. Hil horretan 356 ostatuk izan zuten jarduera, eta aurtengo azaroan, 312k; hil osoan itxita egon diren establezimenduak direla eta, 2020ko urrian 78 izan ziren eta azaroan, 125.

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egungo egoerak ezohikoak izan badira ere elkarlanean jarduteko egindako ahaleginagatik. Haiei esker, informazio hau zabaldu da, eta, haren bidez, COVID19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorearen gainean izan dituzten ondorioak kuantifikatu dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62